



ADIORIK GABE MEMORIA ARTELAN

ESPERIENTZIAN SAKONTZEKO
GIDA PEDAGOGIKOA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostiakultura

ADIORIK GABE MEMORIA ARTELAN

ESPERIENTZIAN SAKONTZEKO GIDA PEDAGOGIKOA

Sormena, gizakion superbotea	2
Sormen mugagabea... baina izaera mugatua	3
Traumaren eraginak	3
Artea sendabide	5
Berradiskidetzearen artea	5
Adiorik gabe: memoriaren artea	7
Entzuketaren enpatikoa	8
Sormena	8
Lankidetzaren	8
Bizitza	9
Senideentzat eta gizarte guztientzat	10
Prozesua eta emaitza	10
Zure esku: zu (bake) sortzaile	11
Eranskina: esperientzia eta baliabide pedagogikoak	12
Euskal kasua lengoia artistikoetan	12
Nazioarteko gatazka eta errealitateak lengoia artistikoetan	16
Bibliografia	21



*Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin4.0 Nazioartekoa
lizentziarekin dago*

Egilea: Baketik Fundazioa 2019



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN


 donostiakultura

“IZAN ERE, ZIENTZIALARI APARTEK
DIOTENEZ, ETA HAUR GUZTIEK
DAKITEN BEZALA, EDOZEREN
GAINETIK IRUDIMENA DA
PERTZEPZIOA, KONPASIOA ETA
ITXAROPENA LORTZEKO BIDEA”

Ursula K. Le Guin¹



¹ Le Guin, Ursula K.: *The Language of the Night: Essays on Fantasy and Science Fiction* (Susan Wood, 1979)



SORMENA, GIZAKION SUPERBOTEREA


Ideiak, kontzeptuak, objektu berriak, horien arteko loturak zein problema baterako konponbideak irudikatu, pentsatu eta sortzeko ahalmen psikosozilogikoa da sormena². Badenaren eta izan zitekeenaren artean aurrera-atzera bidaiatzeko gaitasun gisa defini genezake. Zeregin honetan laguntzen dute beste ahalmen batzuek ere: behaketak, irudimenak, ikaskuntzak eta lankidetzak, esaterako

Gizakiok sormen mugagabea dugu; are, honi esker biziraun dugu. Orain dela 2 milioi urteko gure arbaso homininoek ez zeukaten atzapar, betortz, ilaje edo adar apartekorik; biluzik, makila eta harriz soilik baliatuta, muturreko egoerei arrakastaz aurre egin bazieten, lankidetza eta sormen-txinparta bat zutelako izan zen³. Ingurunea behatuz, loturak eginez eta elkarri lagunduz, tresna berriak sortu zituzten, elikagai berriak ustiatu, eta, apurka-apurka, euren buruak eta inguratzen zituen lurra aldatu zituzten. Sormena ez zuten eguneroko arazoak konpontzeko bakarrik erabili, ordea: eboluzioaren une batean, baliabideak lortzeko tresna erabilgarriak sortzeaz gain, hauek estetikoki atseginak izan zitezen lanean hasi ziren. Forma, kolore eta ehundurekin jolasten, gozamen estetiko hutsa jomuga izanda, artearen aurrekariak sortu zituzten.

Sormen-gaitasunaren adierazgarri bat da pentsamendu sinbolikoa: inguratzen gaituen munduari zentzua ematen diogu haren bidez, eta komunikatu egiten dugu lengoaia kodifikatu batean, keinu, soinu edo irudi bidez. Sinboloak ideia edo errealtate bat islatzen duten irudikapenak dira. Hizkuntza bera pentsamendu sinbolikoaren emaitza da: soinu (ahots) edo irudi (letrak) batzuek errealtate edo ideiak islatzen dituzte. Ezagutza-transmisio bat behar da hauek ulertzeko.

SORMEN ARIKETA

*Lotu bederatzi puntuak 4 lerro
soilik marraztuz eta lapitza
paperetik altxatu gabe.*



² Sormen. Wikipedia-n, 2018ko martxoan kontsultatua: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Sormen>

³ Fuentes, Agustín: *La chispa creativa* (Ariel, 2018)

Pentsamendu sinboliko hau geroz eta konplexuagoa bihurtuz sortu zuten artea gizakiek (gure lehengusu neanderthalek, zehazki), orain dela 65.000 bat urte, kobazuloetako pigmentu, margo, figura eta askotariko dekorazioek adierazten dutenez. Milurteko hauetan guztietan hain konplexua egin da artea, ezen hau definitzeko gai ere ez garen: ez dago adostasunik artearen esanahia-
ren inguruan, ezta hura definitzeko beharraren inguruan ere.

Edozein dela ere definizioa, denok identifikatu ditzakegu artearen bidez bizi izan ditugun esperientziak, bai sortzaile, bai behatzaile bezala. Pentsarazi egiten digu, plazera sortzen digu, edo mina, edo emozio-sorta izugarri zabala. Bizitzen laguntzen digu. Artea behar dugu, oxigenoa behar dugun bezalatsu.

SORMEN MUGAGABEA... BAINA IZAERA MUGATUA

“Garena eta izan nahi dugunaren amildegian gara nor”, dio Mari Luz Estebanek poema⁴ batean. Eta “garena” horren errealitatea zera da: izaki mugatuak garena: inperfektuak, zaurgarriak, ezjakinak, hilkorrak... Batzuetan min ematen diogu elkarri, gaitasun suntsitzaile izugarria dugu, eta ulertu eta kontrolatzen ez duguna ikaragarria da⁵.

Indarkeria, zapalkuntzak eta gerrak izaera mugatu horren adierazgarri dira, eta baita giza-sormenaren emaitza ere. Bonba nuklearra sortzeak izugarrizko sormen gaitasuna eskatzen du, Bach-en fugak sortzeak bezainbeste. Noski, horrek esan nahi du, gizakiek sortutakoak badira, gizakien esku dagoela hauek etetea ere. Izaera mugatu honetaz jabetzea, eta justifikatu edo zuritu gabe onartzea, ezinbestekoa da suntsipena ekiditeko.

⁴ Esteban, Mari Luz: *Amaren heriotzak libreago egin ninduen* (Pamiela, 2013)

⁵ Fernandez, Jonan: *Pertsona izaten hezi* (Arantzazu Baketik Fundazioa, 2010)

“GERRA GURE IRUDIMENAK SORTU DU”

Agustin Fuentes

antropologoarekin elkarriketa



TRAUMAREN ERAGINAK

Dokumentu honetan elkarri eragindako min mota zehatzen ondorioetan jarriko dugu arreta: trauma kolektiboetan. Trauma hauen eragilea naturala denean, "hondamendi" deitzen diogu. Eragileak beste gizaki batzuk direnean, aldiz, bihozgabekeria, gerra, iraultza, albo-kalteak, giza eskubideen urraketak...

Trauma batek zaurgarri bihurtzen du biktimak, zurrumbilo kontrolaezin batek irensten duela iruditzen zaio, kanpoko eragile baten eskuetan dagoela. Beldur bizia, ahultasuna, kontrol falta eta ezerezte mehatxua sentitzen ditu⁶.

Pau Perez Sales psikiatrak elementu partekatu hauek identifikatzen ditu muturreko egoerak (indarkeria politikoa, hondamendiak, gerrak, eraso sexualak...) bizi izan dituztenen artean⁷:

- Esperientzia traumatikoak izaera esanezina, kontaezina, adierazezina dauka. Nahasmen handia sortzen dio pairatu duenari, eta, horren ondorioz, oroimena eta adierazpena zailak dira.
- Gizakiaren segurtasunaren oinarritzko erreferentziak hausten ditu.
- Nork bere duintasuna auzitan jartzera eraman gaitzake, erruaren sentimenduarekin lotuta batzuetan.

Trauma hau kolektiboa denean, trauma indibidualen batuketa baino harago doaz ondorioak: bizi-baldintza materialak kaltetzen ditu askotan, eta gizarte-ehunaren haustura bat ere ekar dezake, identitate kolektiboetan sortzen duen inpaktuagatik edo tradizio eta antolaketa moduetan duen eraginagatik.

Gizakiok berezko mekanismoak ditugu, ordea, egoera larri hauetan, minari aurre egiteko; hala, egoera traumatikoak jasan dituzten gehienek gaitzitu egiten dituzte traumaren ondorioak, eta euren bizitzak berregiten. Trauma kolektiboek aurre egiteko orduan, baliabide aberats eta eragin-korrak eskaintzen dizkigu arteak.

⁶ López Fernández Cao, Marian: *La capacidad del arte para elaborar el trauma*. "Crear la Paz". Revista Por la Paz. 32. zenbakia. 2017ko azaroa ([esteka](#))

⁷ Pérez-Sales, Pau: *El concepto de trauma y de respuesta al trauma en psicoterapia*. Norte de Salud Mental 20, 29-36 orr., 2004 ([esteka](#))

GERNIKAKO BONBARDAKETA

(1937ko apirilak 26)

Entzun Audience taldeak egindako Mikel Laboaren abestiaren bertsio hau. Nola azalduko zenuke hitzez abestiak adierazten duena?



ARTEA SENDABIDE

Adierazten zaila den hori adierazteko, lengoaia analitiko edo arrazionalak baino hobeto laguntzen digu, askotan, lengoaia estetiko eta sinbolikoak. Kontaezin bezala bizi ditugun oroitzapen mingarri eta nahastu horien aurrean, zentzua bilatu eta narratibak sortzeko modu bat da prozesu sortzailea.

Maila indibidualean, sortzaile bezala, egitura bat ematen digu arteak, gure bizipen kaotikoak modu sinboliko batean antolatu eta adierazteko. Espazio seguru bat sortzen du, non sortzaileak bere barne-munduaren kontrola hartzen duen, memoria zail eta ulergaitzak landu, eta zentzu bat emateko haiei. Barnekoa antolatu ondoren, kanporatu egiten du sortzaileak, bere buruarengandik bereizitako zerbait sortuz, eta horrela beste ikuspegi batetik begiratzeko gaitasuna eskuratzen du: behatzaile bezala ikusten du. Posizio horretatik, halako distantzia batekin, errazagoa da norberaren barne-munduko aspektu mingarri, zail edo ulergaitzak landu, sendatu eta birkokatzea.

BERRADISKIDETZEAREN ARTEA

Maila sozialean, minak modu kolektibo batean konpartitu eta lantzea ahalbidetzen du sorkuntza bat sozializatzeak, eta berradiskidetzerako baldintzak sortzen.


Etsaiak izandakoen artean harreman berri bat sortzean datza berradiskidetzea, esparru moral bat birsortuz, non sufrimenduaren eta bidegabekeriaren aitortzak elkarrekiko konfiantza eta errespetuaren bermean sakontzen duen. Harreman berri hori sortzeko, ezinbestekoa da hura irudikatzeko gai izatea. Sormena behar-beharrezkoa da, alegia.

“MUSIKAK ERANTZUTEN DIO ERANTZUNIK EZ DUEN HORRI”

James Rhodes

1720. urtean Johann Sebastian Bach konpositoreak *Chaconne* izeneko obra sortu zuen, aparteko edertasun, konplexutasun eta sakontasuna dituen 15 minutuko bidaia. Bere emaztea hil ondoren sortu zuen, doluan murgilduta, eta galera latz horren aurreko aiene bezala hartu izan ohi da.

la hiru mende geroago, James Rhodes piano jotzaile britainiarak (Londres, 1976) obra horretan topatu zuen bere etsipena gainditzeko arnasmuna: indarkeria sexualaren biktima izan zen 5 urte zituenetik 9 urtera arte, eta traumaren ondorio larriak, min psikologiko eta fisikoak, jasanezinak ziren berarentzat. Bizitzak ez zuen zentzurik. 7 urte zituela, kasualitatez Bach-en *Chaconne* obraren grabaketa bat eskuratu zuen, eta dimentsio berri batera eraman: seguru, babestuta, lasai eta zoriontsu zegoen espazio bat. Halako edertasuna bazela jakinda, bizitzak zentzua hartu zuen bat-batean. Musikaren lengoaia ezagutu zuen, eta ordutik lengoaia hau izan da bere adierazpide, sendabide eta ogibide.



Bideoan **James Rhodes**, Chaconne interpretatzen

Gehiago jakiteko: James Rhodes, Instrumental: Memorias de Música, Medicina y Locura (*Blackie Books*, 2015)

Cynthia Cohen⁸ ikerlariak dio, giza-sentsibiltate berberak erabiltzen dituztela berradiskidetze prozesuek nahiz sorkuntza estetiko prozesuek: harmena, errespetua, enpatia, sormena, bizitasuna eta nork bere pentsamenduen kontzientzia. Berradiskidetzea, nolabait, artelan bat da. Hona hemen nola laguntzen duten gaitasun horiek:

- Harmena (harrera irekia): bai artearen sorkuntzan eta pertzepzioan, zein ezberdinak edo aurkariak diren pertsonak ulertzeko orduan, behaketa edo entzuketa aktiboa ezinbestekoa da. Abesti berri bat entzutean nola, sufritu duten edo aurkariak diren pertsonak modu berean entzutea da gakoa: kuriositatez, gure pentsaera geldituz une batez, geure buruak eta gogoak irekiz.
- Errespetua: elkarren existitzeko eskubidea errespetatzetik hasita, bestearen egia, mina edo erabakimena errespetatzea eskatzen dute berradiskididetze prozesuek eta prozesu estetikoek.
- Enpatia: artelan bat edo aurkari bat errespetuz entzutean, gureak ez diren emozioak sentitzeko gaitasuna (enpatia) aktibatzen zaigu. Bestearekiko kezka eta ardura lantzen ditugu.
- Sormena: harreman mota berri bat zein artelan bat sortzeko, edo artelan baten eraginak geureganatzeko, beharrezkoa dugu aparteko giza-gaitasun hau.
- Bizitasuna: bizirik egotearen edo bizi nahi izatearen indarra eta plazera dira prozesu sortzaileen eta berradiskidetzeko prozesuen motorra.
- Nork bere pentsamenduen kontzientzia: kanpoko elementuen eta geure pentsamendu, zentzumen eta emozioen arteko loturaz jabetzeaz, ikaskuntza bat gertatzen da.

ZEIN DA ARTEAREN PAPER BAKE PROZESUETAN?



⁸ Cohen, Cynthia: *A poetics of reconciliation: the aesthetic mediation of conflict* (doktore-tesia, University of New Hampshire, 1997)

ADIORIK GABE: MEMORIAREN ARTEA

Euskal kasuan gertatutako giza eskubideen urraketei heltzen die *Adiorik Gabe* egitasmoak, biktimei aitortza eta erreparazioa eskaini, eta giza eskubideen errespetua gizartera zabaltzeko asmoz. Donostiako Udalak sustatuta, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren baitan egin zen lehenengo emanaldi sorta. 2019an hiriko hiru biktima zehatz ekarri nahi dira gogora lengoaia artistikoa erabiliz.

Hiru eragile nagusi lotzen ditu egitasmo honek: 1) biktimak eta euren hurbilekoak, 2) artistak, eta 3) gizartea. Biktimen familiekin elkarlanean, prozesu sortzaile bat abiatzen dute lau artistak, eta prozesu sortzaile hori berradiskidetze prozesu ere bihurtzen da, galdutako pertsona errespetuzko marko batean gogora ekartzen duten heinean senideek. Bukaeran, sorkuntzak eszenaratzean, berradiskidetze/sorkuntza prozesu honetan sartzen da gizartea ere.

Ezaugarri berezi hauek dauzka egitasmoak:

ENTZUKETA ENPATIKOA

Biktimen senide eta hurbilekoekin elkarrizketa bat abiatzen dute artistek egitasmoaren hasieran. Helburua da hildakoaren bizitza ezagutzea, nor izan zen, zer egiten zuen, zer gustatzen zitzaion... Elkarrizketa hauek, batzuetan, ez dira errazak, galeraren mina eta honi lotutako emozio desatseginak azaleratu baitaitezke. Artisten jarrera enpatikoa da giltza: epaitu gabe, errespetuz, kuriositatez eta irekitasunez entzuten dituzte istorioak. Gero, informazio hori prozesatu eta sormenari ekiten diote. Sorkuntzak eszenaratzean artisten jarrera enpatiko hori berreganatzen du publikoak ere: bertaratzen direnek epaitu gabe, errespetuz, kuriositatez eta irekitasunez ikusi, entzun eta sentitzen dituzte sorkuntzak.

SORMENA

Artisten lana eta ardura da familiek konpartitutako edukiak arte eta inspirazio poetiko komunitario bihurtzea; familiek hitzez azaltzeko zailtasunak dituzten sentimendu, samin, bizipoz,

Artearen funtzioetako bat da jendearek euren esperientzia barneratzeko hitzak ematea. Edozein kulturatan daude sekulako isiltasunez betetako espazioak, eta artistaren lanetako bat da espazio horietara joan, eta esateko zerbaitekin itzultzea isiltasunetik. Horrexegatik irakurtzen dugu poesia, besteak beste: behar ditugun hitzak ematen dizkigutelako poetek. Poesia ona irakurtzen dugunean, askotan diogu: "Bai, horixe bera. Halaxe sentitzen naiz".

Ursula K. Le Guin (iturria)

ENTZUN, SORTU, GOGORATU: SAHARAKO DESAGERTUAK IRUDIKATUZ

Retratos entre palabras

Los especialistas en cejas, orejas, color y rasgos de los ojos suelen ser agentes de inteligencia, entrenados para identificar sospechosos o seguir objetivos. La policía también tiene programas de retratos robot, que prueban a cambiar los rasgos de la nariz o el pelo, como se cambia de camisa o pantalón.

Para nosotros, en cambio, los detalles son un ejercicio de presencia y de memoria. Por eso son hablados. Las memorias se construyen en un diálogo. Estamos juntos, hablamos de él, de ella. Lo que le gustaba. Su edad. Su comida favorita. Alrededor de la familia, en esta jaima, los cuentos de la vida. Hay varios bocetos que van saliendo en este ir y venir de palabras y de trazos.

Muchos desaparecidos saharauis no tienen siquiera foto. Hamadi y su madre enterraron las fotos en el patio de la casa. Otros las quemaron después de la invasión, por si acaso. O simplemente no hubo medios, ni tiempo en la huida. Los dibujos ocupan el lugar de esa presencia. Algunas veces, los retratos aciertan ahí al lado: a él no se parece, pero es igualito a su hermano. Otras, son todo lágrimas al verlo. Alguien llega con su cámara, para hacer una foto del dibujo que trajo los recuerdos. Otro es un puzle, la nariz de este, pero los ojos de aquel. Aunque todos tienen su milagro:

–Si no se parece a nuestro padre, puede parecerse a otro.

Así, los desaparecidos, vuelven entre nosotros y dejan de ser los desconocidos.

*Beristain, Carlos M.; Gil, Alonso; Guzmán, Federico:
Memorias nómadas. Dolor y res istencia en el Sáhara Occidental (Icaria, 2013)*

oroimin eta bestelakon gaineko esanahi eta atmosfera berri bat sortzea, musika, dantza, irudi abstraktu zein metaforen erabileraren bitartez. Lau zuzendari artistikoak lau lengoaia artistiko edo diziplina desberdinetatik datoz: antzerkia (Olatz Beobide), musika (Juantxo Zeberio), dantza (Aiert Beobide) eta ikus-entzunezkoak (Koldo Almandoz). Askatasunez, modu autonomoan zein elkarrekin lankidetzan egiten dute lan, sormenari zuku guztia ateratzeko. Hala, lau espresio-bide ezberdin jorratu arren, elkarren artean osagarriak diren piezak sortzen dituzte.

LANKIDETZA

Arte konprometituak ezin du gizartetik deskonektatuta egon, ekintza sozial konplexuago baten parte izan behar da. Testuinguru sozial baten baitan adierazten denean hartzen du zentzua sorkuntza artistikoak, sortzaile, egitura, erakunde eta harreman kolektiboen interkonexio esparru baten barruan⁹. Egitasmo honek ez ditu hiru eragile nagusiak bakarrik lotzen (biktimak, artistak, gizartea): udala, bakegintza eta kulturgintza erakundeak, psikoterapian adituak edo unibertsitatea ere tartean daude, besteak beste, eta den-denek ekarpenekin hartzen du zentzua lan honek. Eragile eta norbanako bakoitza gizarte honetako parte da, eta, beraz, modu batean edo bestean, gatazka, tentsioa eta indarkeria bizi izan ditu, edo testigu izan da. Horren bestez, sorkuntza ez da museo bateko artefaktu bitxi edo ekimen isolatu bat; gizartean txeratzten den ekimen saretu bat baizik.

BIZITZA


Memoria ardatz duten egitasmoetan, giza eskubideen urraketak gertatu ziren uneek hartu ohi dute protagonismoa: biktima noiz eta nork hil zuen, eta horren arbuio etikoa. *Adiorik gabe* egitasmoak, ordea, beste ikuspuntu hau hartzen du: hil zutenaren bizitza ekartzen du gogora, ez bere heriotza. Bizitasuna dario sorkuntzari. Modu honetan, pertsona hori izan zena omenduz, giza duintasunarekin konektatzen du, eta enpatia sortzen: azken finean, omentzen ari diren pertsona hori zu eta ni bezalako norbait zen, bere pasio, beldur, une gozo eta garratzekin. Hortik abiatuta, hausnarketa etikoa ia berez iristen da: injustua izan zen, pertsona horren falta gizarte guztiarentzako galera da, ez dugu nahi halakorik berriz gertatzerik.

⁹ Parramon, Ramon: *¿Puede el arte resolver conflictos o vive de los conflictos? "Crear la Paz"*. Revista Por la Paz. 32. zenbakia. 2017ko azaroa ([esteka](#))

2016KO ADIORIK GABE



2019KO ADIORIK GABE



SENIDEENTZAT ETA GIZARTE GUZTIARENTZAT

Gisa honetako memoriaren inguruko proposamen batek bi dimentsio hartzen ditu, erreparazioaren eta neurri sinbolikoen eremuan kokatzen den heinean:

Senide, biktima edo antzekoentzat	Gizartearentzat
Doluaren garrantzizko puntuak	Gizarteak biktimak aitortzea
Beren senideen duintasuna eta adorea onartzea	Belaunaldi berrientzako oroimena
Banakako edo familiarteko esperientziarako eremua	Eragileei kritika edo erantzukizunaren aitortza
Batzuetan, erritualekin lotuta	Giza eremu sinbolikoa

Iturria: Martín Beristain, Carlos; (et al.). Orain da garaia. Argituz, 2013.

Zentzu honetan, *Adiorik gabe* egitasmoak biak hartzen ditu kontuan; biak dira zaindu beharreko dimentsioak. Ikuskizun artistikoak erabateko zentzua izan behar du familientzat, esanahi eta kontakizunarekin bat egin behar du, baita maila intimoan ere. Publiko zabalak ere identifikazio maila bat lortzen du, ordea. Piezak ez du esanahi bera izango familiarentzat eta publiko zabalarentzat, eta, aldi berean, biak hartzen ditu baitan.

PROZESUA ETA EMAITZA

Berradiskidetzea prozesu bat da, eta baita emaitza ere. Era berean, *Adiorik gabe* egitasmoa ere prozesua eta emaitza da: erreparazio prozesu ere baden prozesu sortzaile batetik, eszenaratze artistiko bat eratortzen da. Biak ala biak dira proiektuaren funtsa: prozesua eta emaitza. Bidea bera da helmuga. Ikuspegi hau zabaltzea, bake eta bizikidetzea kulturen sakontzea da: jomuga bezain garrantzitsua da bidea.

ARTISTEN AHOTIK



EUSKADI IRRATIKO FAKTORIA SAIOAN ELKARRIZKETA ARTISTEkin




(egin klik irudian)

▸ GLADYS

Gladys del Estal Ferreño (Venezuela, 1956 - Tuter, 1979ko ekainaren 3a) donostiar ekintzaile ekologista izan zen. Guardia zibil batek tiroz erail zuen, Tuteran egiten ari zen protesta antinuklear bat erreprimitzean. *Iturria: Wikipedia*

Informatikan lizentziatua zen eta kimika eta biologia ikasketak programatzaile lanekin eta ekintzaile-jardunarekin uztartzen zituen bere azken urteetan. Donostiako Kristina Enea parkean bere omenez dagoen monolitoak zera dio:

“Oraindik ilusioa zait geratzen”



Ezkerrean: Gladys del Estal, Egia auzoko martxa ekologista batean (Iturria). Eskubian: Adiorik Gabe 2019 obrako argazki bat. Gladysen bizikleta, Gladys gabe.

Gehiago jakiteko: Argia-ko Larrun aldizkarian Galdys del Estal-en ale berezia

▸ MAYI

Jose Maria “Mayi” Elizegi Diaz pasaitarra, 1976ko urriaren 4ean hil zuen ETAm-k, 25 urte zituela. Gipuzkoako Foru Aldundiko presidentearen auto-gidaria zen, eta lan horretan zebilela hil zuten Donostiako Askatasunaren Hiribidean.

Kotxeen eta hauen mekanikaren zalea zen oso, bere lanbidean gustura zebilen eta bere neskalgunarekin ezkontzekotan zebilen garai hartan.



Hiru anai arrebak txikiak zirela hondartzan pasatako egun polita islatzen du atzeko argazkiak. Dantzaren bidez, argazkioa bezalako iraganeko une gozoak eta geroako une garrazak ekarri zuen gogora Adiorik Gabe egitasmoak.

Gehiago jakiteko: Tuti Elizegiren testigantza grabatua, Gogora Institutuaren eskutik.

▸ PATXI

Francisco “Patxi” Arratibel Fuentes tolosarra ETak hil zuen 1997ko otsailaren 11n, Tolosako ihauterietan, bere 12 urteko semearen aurrean. Enpresaria zen eta emaztea eta bi seme-alaba zituen.

Donostian bizi zen arren, Tolosako ihauterietan parte-hartzen eta gozatzen jarraitzen zuen, Kabila txarangarekin hain zuten ere.



Ihauterien sinbologia eta musika erabili ziren Patxiren bizitza omentzeko.

Gehiago jakiteko: Susana Ezkurra, Patxi Arratibelen alargunari elkarrizketa (ETB, 08/11/2017).

Gogora Institutuak dokumentazio zentro bat dauka Bilboko bere egoitzan. Bertan kontsultatu daitezke indarkeriaren biktimen testigantzak. Jarri harremanetan Gogorarekin hemen: www.gogora.euskadi.eus | María Díaz de Haro, 3 – 3. solairua, 48013 Bilbo | Tel. +34 944 032844 | gogora.dokumentazioa@euskadi.eus

ZURE ESKU: ZU (BAKE) SORTZAILE

“GURE KULTURAK ORAINDIK ZERA DIO: BADAUDE ARTISTAK DIRENAK ETA EZ DIRENAK. HAU ANKERKERIA HUTSA DA, ETA HORTIK SORTZEN DA GIZA-KIEN ARTEKO ALIENAZIOAREN KONTZEPTUA”

Joseph Beuys

Den-denok dugu artea eta berradiskidetzea sortzeko gaitasuna. Gida hau irakurri ondoren, zure eskuetan uzten dugu erronka. Horretarako, bost geldialdiko bidaia hau egitera animatzen zaitugu:

1. Informazioa bildu

Jakin-mina da edozein sormen prozesuren abiapuntua. Ikertu ezazu, iturriak bildu, gal zaitez informazio itsaso batean. Beti daude ikuspuntu, datu eta konexio gehiago; baina, horiek guztiek gain hartu eta paralizatu ez zaitzaten, ekin eta jarraitu bidaia.

2. Entzun

Epaitu gabe begiratzea, eginaren eginaz ikasten den arte bat da. Hemen ere jakin-mina erabiliko dugu abiapuntu, eta geuk dauzkagun aurreiritzien kontzientzia hartzen saiatuko gara, bai eta emozio eta iritziena ere, ez daitezen izan gure sormenarentzat oztopo. Irekitasuna eta harmena behar ditugu entzungo ditugun errealitateetan sakontzeko eta konexio berriak egiteko gure baitan.

3. Hausnartu

Geldialdi honetan, entzuketak utzi digun arrastoan geldituko gara. Modu arrazionalen egin dezakegu, edo maila emozionalen prozesatu dezakegu, gorputzarekin, zentzumenekin... Gustukoen duzun lengoia artistikoaren arabera izango da hori, prozesatzen duzun informazioaren eta zeure gaitasunen arabera. Bakarka egin dezakezu, edo taldean, galdera eta ondorioak elkarbanatuz. Ongi dagoena eta gaizki dagoena bereizteko prozesu etikoa bidelagun izan beharko genuke hausnarketa honetan.

4. Sortu

Festa hastera doa: orain arteko guztia eragin digun hori, orain arte existitzen ez zen zerbaitetan hezur-mamitzera goaz. Ez dago jarraibide zehatzik zeregin honetarako. Batzuek diziplina erabiltzen dute, beste batzuk inspirazioaren zain gelditzen dira... Baina oso ohikoa da, fase honetan, halako deserosotasun bat sentitzea, bai eta frustrazioa eta gogobetetze maila eskasa ere. Baina, lasai, uneren batean beti sortzen da *zerbait*. Gertu dago.

5. Adierazi

Aukeratu zure lengoia artistikoa edo adierazpidea, nahastu itzazu nahi bezala eta erabil itzazu nahi duzun pertsonekin zure sorkuntza elkarbanatzeko. Hemendik aurrera, sorkuntza hori jada ez da zurea bakarrik: jasotzen dutenek eureganatu egingo dute. Zer iristen zaien eta zer ez, nola iristen den... hori jada ez dago zure esku. Bizitza propiodun zerbait sortu duzu. Zorionak!



ERANSKINA: ESPERIENTZIA ETA BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

Atal honetan baliabide, esperientzia eta erreferentzia ezberdinak eskaintzen dira. Ez da zerrenda oso eta itxi bat, baliabideak mugagabeak baitira. Dastagarri modura aurkezten dira, gehiago ikertzeko amu bezala eta, batez ere, inspirazio iturri bezala.

EUSKAL KASUA LENGOAIA ARTISTIKOETAN

NOBELA GRAFIKOAK

- Alfonso Zapico: Zubigileak / Los puentes de Moscú (Astiberri, 2018)
- Javier de Isusi: Baleak ikusi ditut (Astiberri, 2014). Ikusi hemen aurrerapen bat

EUSKAL "GAUZA" EUSKAL LITERATURAN

Iban Zaldúa idazleak Contexto komunikabideko bi artikulutan (gaztelaniaz, bat eta bi) aipatzen ditu hurrengo liburuak (Zalduak berak idatzitakoak falta dira). "Euskal gauza" (sic.) lantzen dute guztiek modu batera edo bestera:

- Ramon Saizarbitoria: *Ehun metro* (Editorial Kriseilu, 1976)
- Mario Onaindia: *Grand Placen aurkituko gara* (Haranburu Editor, 1983) / *Grand Place* (Akal, 1985)
- Mikel Hernandez Abaitua: *Etorriko haiz nirekin?* (Elkar, 1991) / *¿Vendrás conmigo?* (Centro de Lingüística Aplicada Atenea, 2010)
- Aingeru Epaltza: *Ur uherrak* (Pamiela, 1991) / *Agua turbia* (Pamiela, 2013)
- Bernardo Atxaga: *Gizona bere bakardadean* (Pamiela, 1993) / *El hombre solo* (Alfaguara, 2006)
- Laura Mintegi: *Nerea eta biok* (Txalaparta, 1994) / *Nerea and I* (Peter Lang Press 2005)
- Bernardo Atxaga: *Zeru horiek* (Erein 1995) / *Esos cielos* (Ediciones B, 1997)
- Ramon Saizarbitoria: *Hamaika pauso* (Erein, 1995) / *Los pasos incontables* (Espasa-Calpe, 1998)
- Mikel Hernandez Abaitua: *Ohe bat ozeanoaren erdian* (Erein, 2001)
- Luistxo Fernandez: *Kontaktua* (Elkar, 1996)
- Xabier Mendiguren: *Berriro igo nauzu* (Elkar, 1997) / *Mi vieja montaña* (Hiru, 2000)
- Arantxa Urretabizkaia: *Koaderno gorria* (Erein, 1998) / *El cuaderno rojo* (Ttarttalo 2003)

- Koldo Izagirre: *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak* (Elkar, 1999) / *Nuevas prisiones del viejo Aguirre* (Ttarttalo, 2001)
- Jose Luis Otamendi: *Euri kontuak* (Susa, 1999)
- Harkaitz Cano: *Pasaia Blues* (Susa, 1999) / *Pasaia Blues* (Ttarttalo, en 2012)
- Joseba Sarrionandia: *Lagun izoztua* (Elkar, 2001)
- Anjel Lertxundi: *Zorion perfektua* (Alberdania, 2002) / *Felicidad perfecta* (Alberdania 2006)
- Itxaro Borda: *Hiruko* (Alberdania, 2003)
- Bernardo Atxaga: *Soinujolearen semea* (Pamiela, 2003) / *El hijo del acordeonista* (Alfaguara, 2004)
- Xabier Montoia: *Denboraren izerdia* (Elkar, 2003)
- Joxe Belmonte: *Hamar urte barru* (Erein, 2003; *Al cabo de diez años*, 2006)
- Jokin Muñoz: *Bizia lo* (Alberdania, 2003; *Letargo*, 2005)
- Juanjo Olasagarre: *Ezinezko maletak* (Susa, 2004) / *Las maletas imposibles* (Bassarai, 2008)
- Jokin Muñoz: *Antzararen bidea* (Alberdania, 2007; *El camino de la oca*, 2008)
- Juanjo Olasagarre: *T (Tragediaren poza)* (Alberdania, 2008; *La alegría de la tragedia*, 2012)
- Hainbat autore: *Haginetako mina* (Txalaparta, 2008)
- Anjel Lertxundi: *Etxeko hautsa* (Alberdania, 2011)
- Uxue Apaolaza: *Mea culpa* (Erein, 2011)
- Harkaitz Cano: *Twist* (Susa, 2011) / *Twist* (Seix Barral, 2013)
- Ramon Saizarbitoria: *Martutene* (Erein, 2012)
- Xabier Montoia: *Azken afaria* (Susa, 2013)
- Jose Luis Otamendi: *Kapital publikoa* (Susa, 2014)
- Lander Garro: *Gerra txikia* (Susa, 2014) / *Pequeña Guerra* (Txertoa, 2017)
- Unai Elorriaga: *Iazko hezurak* (Susa, 2014)

- Katixa Agirre: Atertu arte itxaron (Elkar, 2015) / *Los turistas desganados* (Pre-textos 2017)
- Hainbat autore: Nuestras guerras. *Relatos sobre los conflictos vascos* (Lengua de Trapo, 2014)
- Juanjo Olasagarre: *Poz aldrebesa* (Susa, 2017)
- Harkaitz Cano: *Fakirraren ahotsa* (Susa, 2018)

SAIAKERA

- Xabier Gantzarain: *Zuloa* (Elkar, 2018)
- Eurne Portela: *El eco de los disparos* (Galaxia Gutenberg, 2016)

IKUS-ENTZUNekoAK

BERRADISKIDETZEA LANTZEN: BAKETIKEN BIDEOTEKA

Euskal kasuan bakea eta berradiskidetzaren inguruko hausnarketa sustatzeko pelikulak eta dokumentalak barne hartzen dituen sailkapen bat sortu zuen Baketik-ek, helburu hezitzaile eta ez-komertzialetan. Pelikula bakoitzak gida didaktiko labur bat dakar berekin, pelikulen edukien inguruko azterketa eta hausnarketa erraztu, eta berradiskidetzarako bidean orientatzen laguntzeko asmoz.

Une honetan, bederatzi dokumentalek eta pelikula batek osatzen dute bilduma: *Asier ETA biok*, *Barrura begiratzeko leihoak*, *El valor de la autocrítica*, *Glencree*, *Hablan los ojos*, *Lasa eta Zabala*, *Lluvia seca*, *Pelota vasca*, *Reconciliación* eta *Triángulo de la muerte*.

DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA


Zinemaldiaren helburua da giza eskubideen defentsaren eta urraketaren hainbat alderdiren inguruko gogoeta, sentsibilizazioa eta eztabaida bultzatzea, eta justiziarekin eta gizarte-berdintasunarekin konprometitutako herritar aktiboak sustatzen laguntzea. Helburu hori zinemaren bidez lortu nahi da, eta horrela, urtean zehar giza eskubideei lotuta egin diren film luze eta labur garrantzitsuenetako batzuk jasotzen dira programazioan.

Edizio ezberdinetako pelikulen datu-basea [kontsulta daiteke hemen](#).



HITZALDIA: LITERATURA ETA MEMORIA

Iban Zaldua, Eurne Portela eta Katixa Agirreraren partaidetzarekin (Gogora Institutua, 2018ko ekaina, Bilbo)



ANTZERKIA

· PROYECTO 43-2



· “BIZIMIÑAK”, ITZEL KONPAINIA



· LOS GONDRA
(UNA HISTORIA VASCA)



· “S(U/A)MINETIK BAKERA”,
ARTEMAN



· “ETA HIK ZER?” ANTZERKI
FORUMA, BAKETIK FUNDAZIOA



NAZIOARTEKO GATAZKA ETA ERREALITATEAK LENGOAIA ARTISTIKOETAN

NOBELA GRAFIKOAK: HAUTAKETA BAT

Donostiako Komikigunearen laguntzarekin, aukeraketa hau proposatzen dugu, gatazka eta aro ezberdinak komikien bidez ezagutzeko:

- Keiji Nakazawa: *Pies descalzos: una historia de Hiroshima* (Debolsillo, 2015)
- Sid Jacobson, Ernie Colon: *El informe 11-S* (Panini, 2007)
- Antoni Guiral, Pepe Gálvez, Joan Mundet: *11-M: la novela gráfica* (Panini, 2009)
- Ana Penyas: *Estamos todas bien* (Salamandra, 2017)
- Ana Penyas: *En transición* (Barlin Libros, 2017)
- Miguel Francisco: *Espacios en blanco* (Astiberri, 2017)
- Antonio Altarriba, Kim: *El arte de volar* (Norma Editorial, 2009)
- Paco Roca: *El invierno del dibujante* (Astiberri, 2010)
- Carlos Giménez: *Paracuellos* (Ediciones Glénat, 1999 – 2003)
- Alissa Torres: *American Widow* (Rizzoli Lizard, 2011)
- Art Spiegelman: *Maus* (Reservoir Books, 2019)
- Joe Sacco:
 - *Notes from a defeatist* (Fantagraphics, 2003).
 - *Palestina: en la franja de Gaza* (Palestine. Colección Trazado, Planeta-DeAgostini Comics, 2002)
 - *War's End / El final de la guerra* (Drawn and Quarterly, 2005 / Planeta 2006).
 - *Gorazde: Zona protegida* (Safe Area Gorazde. Colección Trazado, Planeta-DeAgostini Comics, 2001)
 - *El Mediador* (The Fixer. Planeta-DeAgostini Comics, 2001)
 - *Notas al pie de Gaza* (Footnotes in Gaza. Random House Mondadori, 2010)
 - *Historias de Bosnia* (Planeta-DeAgostini Comics 2016).
- Nina Bunjevac: *Patria* (Turner, 2014)

LIBURU ILUSTRATUAK:

- Beristain, Carlos M.; Gil, Alonso; Guzmán, Federico: *Memorias nómadas. Dolor y resistencia en el Sáhara Occidental* (Icaria, 2013)
- Lxs desconocidxs. Retratos de desaparecidos saharauis. Artifariti, 2010.

IKUS-ENTZUNEOAK

• Europa Transit

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren proiektuetako bat da Europa Transit. Haren baitan hamar dokumental filmatu ziren beste hainbeste hiri europarretan; hain zuzen ere, bizikidetza-erronka bati aurre egin beharrean aurkitzen diren hamar hiritan: Ceuta, Belfast, Dresden, Wrocław, Mosku, Sarajevo, Pafos, Plovdiv, Pristina eta Tesalonika.

Film bakoitzak istorio ezberdin bat kontatzen du, baina guztietan nabarmentzen da gai nagusi bera: nola egiten dion aurre komunitate batek gatazkari edo hark utzitako legatuari.

Dokumental denak hemen daude eskuragarri.



- **Morir de sueños, Clemente Bernard**

Espainiako Gerra Zibileko kontakizun bat.



- **El sueño de Malika, Clemente Bernard**

Pateretan iristen diren eta bidean geratzen diren pertsonen patua, Malikaren istorioaren bidez.



ANTZERKIA

• HEGO AMERIKAKO ESPERIENTZIA BATZUK:



DANTZA

• KOLONBIA

Kolonbiako Trujillo herriko Biktimen Elkartek monumentuen bidez ekartzen ditu gogora euren senide desagertuak; Kartagenan, herrialdeko desplazatuak dantzaren bitartez omentzen ditu "El Colegio del Cuerpo" taldeak.



MUSIKA

• Escola de Cultura de Pau: Programa de música y paz

Web orrialde honek musika eta bakea uztartzen dituzten egitasmo, testu eta erreferentziak biltzen ditu:

- [Cuadernos de música](#)
- [Acció musical global](#)

JAMES RHODES: MÚSICA Y EL YO INTERIOR

hitzaldia (ingelesez, gaztelaniaz azpigitulatuta)



ARTE PLASTIKOAK

Arpillerak eta bestelako ehunezko lanak sortuz, gatazkak eta giza eskubideen aurkako urraketak ohikoak diren testuinguruetan izan dituzten bizi-penak kontatu izan dituzte emakumeek, etxeko materialak erabiliz: orratzak, haria eta oihal pus-kak. Ipar Irlanda, Ingalaterra, Espainia, Txile, Peru, Argentina, Zimbabwe, Alemania eta Kolonbia be-zalako tokietan ikusi ahal izan dira.

Ondoko dokumentalean, Txileko esperientzia ageri da.



Informazio gehiago:
[Gernikako Bakearen Museoa](#)

DENETARIK

- **Esperientzia internacionalak**

Hegoafrika, AEB, Ekuador... gatazka askotan erabili izan da artea bakea eraikitzeko.

- **Itsasoratze artibista**

“Itsasoratze Artibista: Arterapia eta Artibismoa” gaur egungo premia sozialei artearen bitartez ekiteko prozesu bat izan zen, ikerkuntzan, partehartzean eta erakusketan oinarritua.



BIBLIOGRAFIA

DOKUMENTU HAU EGITEKO ERABILI DIRENAK:

- Cohen, Cynthia: *A poetics of reconciliation: the aesthetic mediation of conflict* (doktore-tesia, University of New Hampshire, 1997) ([esteka](#))
- *Crear la Paz*. Revista Por la Paz. 32. zenbakia. 2017ko azaroa ([esteka](#))
- Fernandez, Jonan: *Pertsona izaten hezi* (Arantzazu Baketik Fundazioa, 2010)
- Fuentes, Agustín: *La chispa creativa* (Ariel, 2018)
- Martin Beristain, Carlos: *Apoyo psicosocial en catástrofes colectivas: de la prevención a la reconstrucción* (Caracas, Venezuela : Asociación Venezolana de Psicología Social-AVEPSPO; Universidad Central de Venezuela, 2000) ([esteka](#))
- Perez-Sales, Pau: *El concepto de trauma y de respuesta al trauma en psicoterapia*. Norte de Salud Mental 20, 29-36 orr., 2004 ([esteka](#))
- Varona Martínez, Gema: *Arte, memoria y justicia en victimizaciones graves: adiorik gabe* (UPV/EHUko Liburuak, 2017) ([esteka](#))

ADIORIK GABE EGITASMORAKO ERABILI DIRENAK:

- Hamber, B.: *Sociedades después de la violencia política*. Bellaterra, 2011.
- Igartua, J.; Paez, D.: *Art and remembering traumatic collective events: the case of the Spanish Civil War*. In: J. Pennebaker, D. Páez, B. Rimé (Eds.) *Collective*
- Martín Beristain, Carlos; (et al.). *Orain da garaia*. Argituz, 2013.
- Martin Beristain, C.; Paez Rovira, D.: *Superando la violencia colectiva y construyendo cultura de paz*. Fundamentos, 2011.
- Pennebaker, J. W., Paez, D., & Rimé, B. (Eds.): *Collective memory of political events: Social psychological perspectives*. Hillsdale, Lawrence Erlbaum, 1997.
- Rogerson, Michelle: *Understanding and Researching Crime and Deviance Through Creative Sources*. Ashgate, 2014.
- *Víctimas*. In: Compilación de documentos generados por el Gobierno Vasco en la Legislatura 2012-2016 en materia de paz y convivencia. Jaurilaritza, Secretaría General para la Paz y Convivencia, 2016.
- Walklate S. L.; McGarry R.; Myhen, G.: *Trauma, Visual Victimology, and the Poetics of Justice*. In: Michael Hviid Jacobsen (Ed. lit.): *The Poetics of Crime: Understanding and Researching Crime and Deviance Through Creative Sources*. Ashgate, 2014.

